

+ Hurrengo taulan inkesta bateko emaitzak ematen dira. Irakurri arreta handiz eta bilatu falta diren datuak.

Inkesta egiteko kontuan hartu diren biztanleak: 20.000 pertsona			
Lagina, guztira: 1.500 pertsona	Gizonak: 800 pertsona		Emakumeak: A
Normalean euskara erabiltzen dut lanean:			
Gizonak:		Emakumeak:	
Bai: 525	Ez: B	Bai: C	Ez: 415

1/ A-ren balioa honakoa da:

- a) 600 b) 800
 c) 700 d) 1.500

2/ B-ren balioa honakoa da:

- a) 275 b) 350
 c) 445 d) 800

3/ C-ren balioa honakoa da:

- a) 250 b) 350
 c) 185 d) 285

+ Hurrengo taulan inkesta bateko emaitzak ematen dira. Irakurri arreta handiz eta bilatu falta diren datuak.

Biztanleak: 15.000		Lagina: 1.500	
Normalean euskaraz hitz egiten dut lagunekin:			
Bai		Ez	
Absolutua	Ehunekoa	Absolutua	Ehunekoa
825	M	N	O

4/ M-ren balioa honakoa da:

- a) % 45 b) % 55
 c) % 35 d) % 52

5/ N-ren balioa honakoa da:

- a) 455 b) 575
 c) 675 d) 825

6/ O-ren balioa honakoa da:

- a) % 45 b) % 55
 c) % 35 d) % 60

+ Guztira 20.000 pertsonako populazioan 1.500 pertsonako laginarekin inkesta egin da; laginean 770 gizon eta 730 emakume egon dira. Kalkula ezazu zenbat gizonek egin duten inkesta, aukeratu den lagin horretan. Eman ehunekoa.

- 7/
- a) % 48,66
 - b) % 51,33
 - c) % 38,6
 - d) % 55,2

+ 12.000 pertsonako populazioan 600 pertsonako lagina hartu da; eta 15.000 pertsonako beste populazio batean 750 pertsonako lagina hartu da. Hurrengo baieztapenetatik zein da egia?

- 8/
- a) Lehenengo populazioko laginaren ehunekoa bigarren populazioko laginarena baino handiagoa da.
 - b) Bi populazioetako laginek ehuneko bera dute.
 - c) Hori ezin da jakin.
 - d) Lehenengo populazioko laginaren ehunekoa bigarren populazioko laginarena baino txikiagoa da.

+ 25.000 biztanleko populazioan, biztanle guztien % 12 izango den lagina hartu nahi da. Lagin horretan, gainera, % 60 emakumeak izan behar dira eta gainerakoak gizonak. Zenbat gizon hartu behar dira laginerako?

- 9/
- a) 120
 - b) 60
 - c) 150
 - d) 180

+ 30.000 biztanleko populazioan 1.500 pertsonako lagina hartu da. Laginak 40.000 biztanleko populazioan ehuneko bera izan dezala lortu nahi bada, zenbat pertsonak parte hartu behar du laginean?

- 10/
- a) 2.000
 - b) 3.000
 - c) 1.500
 - d) 4.000

Hizkuntzen erabilera Euskal Herrian

Testaren zuzenketa:

1. c
2. a
3. d
4. b
5. c
6. a
7. b
8. b
9. d
10. a